



Santa Krutz jaiak Andoainen, asteazkenean hasi eta igandera arte

Asteazken arratsaldean hasi eta igande iluntzera arte ekitaldi ugari burutuko da herrigunean.

Udaberria bete-betean dela, herritar gehienek eta inguruko herrietako biztanle askoren arreta pizten dute Santa Krutz jaiak. Ekitaldi asko egitarauan finkoak izaten dira, hala nola, maiatzaren 1eko lasterketa, maiatzaren 3ko Ikurrinaren jaitsiera eta dantza saio ikusgarria, edota jaietako azken eguneko sagardo lehiaketa. Badira ere, egonkortzeko joera har dezaketen hitzordu berriak. Horien artean ostegun honetako **pintxo lehiaketaren** bigarren edizioa. Taberna askotako sukaldarien trebezia erakusteko hitzordua izango da. Euro baten truke pintxo goxoez gozatzeko aukera izango da taberna hauetan: Zeru, Txitibar, Txalaka, Xaxi, Txuribeltz, Gaztelutxo, Txindoki, Irunberri, Traiñerum, Urkiola, Bastero, Hiru, Atarraia eta Miura. Ikusiko da iaz nagusitu zen Urkiola tabernaren lekukoa nork hartzen duen.

Festari ukitu berezia emateko antolatzaileek iaz ekimen berritzailea martxan jarri zuten: **Elegante eguna**. Aurten ere festazaleak elegante kalejiran hurbiltzeko deialdia luzatu dute. Iaz ibili zirenak giro ederrean aritu ziren. Aurten, giro on hori areagotzeko, musika jarraizale bat izango dute ibilbidean zehar.



Elegante eguna bigarren bezala ospatuko da Santa Krutz jaietan. Iaz bezala, giro ederrean igarotzeko osagairik ez da faltako.

“Ingo al deu?” taldeak disko berrian bildu dituen kantu berriak entzungai izango dira Bekoplazan, larunbat honetan

Umorea eta festa ez dira faltako, ezta musika doinuak ere. Rock kontzertu ikusgarriak eta erromeri giroko plaza taldeak gauero entzungai izango dira. Horien artean, diskoa labetik atera berri duten **“Ingo al deu?”** taldekoak dira. Jaiak hastearekin batera bederatzi kantuko diskoa argitaratu dute, eurek egindako abestiak eta bertsioak uztartuz. Prentsa ohar bi-

dez adierazi dutenez, “autokoizpenean oinarritutako diskoa da eta taldeak berak eskerrikeri beroenak eman nahi dizkie diskoa osatzen lagundu dieten guztiei, batez ere Iñigo Garridori eta Igor Astigarragari”. Diskoa Lanbroa, Olajauna eta Irunberri tabernetan salgai egongo da 5 euroren truke.

“Ingo al deu?” taldearen kantu berri horiek entzungai izango dira Bekoplazan, larunbat honetan.

KOADRILEN EGUNA

Ostiral honetan adin guztietako koadrilek bat egingo dute jaietako bazkarian. Zumea plazan egingo da, baina euria iza-

nez gero, mahaia Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian ipiniko dituzte. Eguzki talde ekologistak koadrilen bazkarian direnei hondakinak bereizteko eta edukiontzi ezberdinak erabiltzeko deia egiten die. Ekimen zehatz horrez haratago, edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeko deia ere egin dute.

Asteazken arratsaldean hasi eta igande iluntzera arte ekitaldi ugari burutuko da herrigunean. Jaiaren jarraipen zabal eskainiko du aiurri.com guneak. Bertan ikus ahal izango dira jaietako argazkiak eta bideoak.

[GEHIGARRI BEREZIA]



Jaia Azkorten

Maiatzaren 3a ospakizun eguna izaten da Urnietan ere. Hauxe aurtengo Santa Krutz eguneko egitaraua Azkorte ermitan:

09:30-14:00 Autobus zerbitzua taxi geltokitik Azkorterera. Azken igoera 12:00etan.

11:00 Meza.

11:45 Trikitixa Zabale eta Larrañagarekin.

12:00 Herri kirol erakustaldia.

13:00 Bertsolariak: Patxi Etxeberria eta Anjel Larrañaga.

13:30 Trikitixa Zabale eta Larrañagarekin.

14:00 Bazkari herrikoia Oianumea jatetxean. Izen-umatea: Oianumen.

15:30 Bertsolariak eta trikiti doinuak Oianumen.

Espainiar bandera Urnietan

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Udalekuak 2014 Urnieta

Eguzkitan blai
Kirol udalekuak

Inskripzioa

BERTAN bulegoan
eta LEKAIKO kultur etxean

Apirilaren 28tik
maiatzaren 9ra.

INFORMAZIOA

943 00 80 00
943 00 80 33

udalekuak@urnieta.org

Gaztegunearnietan

Pirritx, Porrotx eta MaRiMotots

Sarrerak dagoeneko salgai:
 Urnieta < Kantoi, Amailur.
 Maiatzaren 5etik aurrera:
 Andoain < Aiurri, Ernaitza.

Maiatzak 28, asteazkena
 17:30. 7 euro
 Egape ikastola • Urnieta

Urnieta
BIZIPOZA

Aiurri
 INISTORRA
 URNIETAKO UDALA

Maiatzaren 10ean Saroben herriko kultur taldeen eskutik

Gure esku dago kultur ekitaldia Saroben



Xabier San Sebastian kantari ezaguna, Anabasa taldea, Egape dantza taldea, Fermin Argiñarena edota Monica Redondo musikaria igoko dira taula gainera.

Gure Esku Dago ekimenak kultur ekitaldia antolatu du datorren maiatzaren 10erako, arratsaldeko 19:30etan Saroben. Herriko hainbat talderen parte hartzea-

rekin. Bertan izango dira Anabasa taldea eta Xabier San Sebastian abeslari ezaguna, herriko beste abeslari batzuekin batera. Julian Cobzaru eta Petra Else- rrek hainbat abesti eskainiko

Ikuskizunerako sarrerak dagoeneko salgai daude 2 euroko prezioan herriko hainbat tokietan

dituzte, atzerrikoak eta euskal- dunak. Egape dantza taldea ere bertan izango da. Batukada saioa ere eskainiko da. Horrez gain, Fermin Argiñarena bertsolaria, Monica Redondo biolinjolea, txalapartariak, bakarrizketak, Bide Ertzean taldearen abesti bat ere eskainiko da pantaila handian. Bertaratzen direnek herrian ekimenari babesa emanaz grabatutako bideoa ikusteko aukera ere izango dute.

Ikuskizunerako sarrerak dagoeneko salgai daude 2 euroko prezioan honako tokietan: Sarobe, Muazpi harategia, Xauxar taberna, Amailur taberna, Trazos ileapaindegia eta Kantoi taberna.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen saioa Urnietan

Sarrerak salgai daude

Maiatzaren 28an, asteazkenarekin, arratsaldeko 17:30etan hasita, ikuskizun berriena taularatuko dute Pirritx eta Porrotx pailazoek Egape ikastolako jolastoki estalian. “Bizipoza” izena du ikuskizunak eta Urnietako haurrek herrian bertan ikusi ahal izango dute. Sarrerak 7 euroko prezioan salgai jarri zituzten asteartean. Erostea aukera egon badago Idiazabal kaleko Amailur tabernan eta San Juan plazako Kantoi tabernan.



“Bizipoza” ikuskizun berriena taularatuko dute Urnietako saioan.

Espainiar bandera Udaletxeko balkoian ipinita



Espainiako bandera Urnietako balkoian ipinita dago.

Urnietako Udalak Auzitegi Gorenak emandako agindua betetz, Espainiako bandera udaletxean jarri du. Balkoian ikus daitezke orain hiru mastadun bandera: ikurrina ezkerrean, espainiarra erdian eta Europakoa eskuinean.

Espainiako bandera “ohorezko lekuan” jartzeko agindu zuen Espainiako Auzitegi Gorenak. Gipuzkoako Foru Al-



dundiari esaterako, “ohorezko leku” hori balkoia dela zehaztu zion Gorenak.

Santa Krutz elkartearen eguneko bazkaria

Datorren maiatzaren 4an, igandearekin, Santa Krutz elkarteak urtero egiten duen moduan elkartearen eguna ospatuko du. Bazkaria eguerdiko 14:00etan hasiko da, eta menua honakoa: Itsaski krema, legatza saltsan, arkume erreka, hojaldre tarta eta kafea. Deialdi irekia egin du zu-

zendaritzak, bazkide babesle, jubilatuta eta kirolariak animatzen ditugu lagun artean egun polita pasatzera, baita haiekin etorri nahi dutenei ere”.

Izena emateko, elkarteko iragarkien taulan ipinita dagoen orrialdean maiatzaren 1a baino lehen.

Eguzkitan Blai, izena emateko epea zabalik

Eguzkitan Blai udaleku irekien edizio berria antolatzen hasi dira. 2002-2010 urte tartean jaiotako haurrei zuzenduta, uztailearen 1etik

30era burutuko da, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Plaza mugatuak dira. Izen-ematea Bertan edo Lekaion, maiatzaren 9a baino lehen.

PAZKO ASTEAN AISIALDI AUKERA ZABALA URNIETAKO HAUR ETA GAZTETXOENTZAT



Apirilaren 21etik 25era kultur jarduera ugari burutu zen Urnietan. Aurreko ostiral goizean, esaterako, jolasak antolatu zituzten Egapeko jolastoki estalian. Arratsaldean, berriz, antzerkia Saroben.

Euskal literaturgileen artean sariketa entzutetsua



Iazko edizioko sari banaketa ekitaldia Andoainen burutu zen. Ezker eskuin, Ana Carrere Andoaingo alkatea, Ramon Saizarbitoria sariduna eta Patxi Bazkarri-ka Eusko Jaurlaritzako Hikuntza Politikako Sailburu-ordea.

Beterriko Liburua izenarekin garai batean, eta azken urteetan *111 Akademia saria* izenarekin, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak eta Iñistorrak bideratzen duten ekimena euskarazko literaturgintzan esanguratsuen bilakatu da. Bereizgarri nabarmena du *111 Akademia sariak*, irakurleek urteko liburu onena zein den eurek aukeratzen dutela. Ekimen honetan eskualdeko eta Euskal Herri osoko ia berrehun literaturzalek hartzen du parte. Bada, beraz, kontuan hartzeko lagina.

2013 urteko liburu guztien artean, finalistak Miren Agur Meaberren *Kristalezko begibat* eta Aingeru Epaltzaren *Gure Jerusalem* galdua izan ziren. Azken bozketan, aldiz, Meaberren eleberriak jaso zuen boto gehien. Meabe izango da, beraz, irabazlea. Saria jasotzera etorriko da eta baita, ohiko duen bezala, Patxi Bazkarrika Eusko Jaurlaritzako Hikuntza Politikako Sailburu-ordea. Ekitaldian Jon Unanue Larramendi Bazkune-ko eta Iñistorrako lehendakariak parte hartuko du.

Estrainekoz sari banaketa ekitaldia Urnietan egingo da. Maiatzaren 8an izango da, Saroben 19:30etan hasita.

Saritutako liburuen eta idazleen zerrenda oparoa da:



Jon Unanue.

- 2013** Miren Agur Meabe, Kristalezko begi bat.
- 2012** Ramon Saizarbitoria, Martutene.
- 2011** Harkaitz Cano, Twist.
- 2010** Ur Apalategi, Fikzioaren izterrak.
- 2009** Irati Jimenez, Nora ez dakizun hori.
- 2008** Anjel Lertxundi, Zoaz infernura, laztana.
- 2007** Jokin Muñoz, Antzararen bidea.
- 2006** Karnele Jaio, Amaren eskuak.
- 2005** Juan Kruz Igerabide, Hauts bihurtu zineten.
- 2004** Pako Aristi, Gauza txikien liburua.
- 2003** Bernardo Atxaga, Soinujolearen semea.
- 2002** Anjel Lertxundi, Zorion perfektua.
- 2001** Joseba Sarrionaindia, Lagun izoztua.
- 2000** Ramon Saizarbitoria, Gorde nazazu lurpean.
- 1999** Lourdes Oñederra, Eta emakumeari sugeak esan zion.
- 1998** Koldo Izagirre, Nik ere Germinal! egin gura nuen aldarri.
- 1997** Ur Apalategi, Gauak eta hiriak.
- 1996** Joxean Aquirre, Elgeta.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILADEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

HITZ-GEZIDUNAK

* Herritarren arreta zerbitzua

				Atzamar	▼	Frijituta, ezin hobea	▼	Mailuz kolpatu	▼
				✱		Erraz		Itzagaondoa- ko auzoa	
				▶		▼		▼	
				Ukimendu	▶				
				Aurpegiaren atal	▶				
Emakume izena	▼	Herri hizke- ran, Xabier	▼	Urrats	▶				
Kubako hiriburua		San Mames, esaterako		Zelan					
▶		▼		▼		Kolpearen onomatopeia	▶		
						Zuhaixka mota			
Mesedez, arren	▶					▼		Bokala	▶
Uztail								Gizon izena	
▶					Zirt edo ... erabaki!	▶		▼	
					Euskal Telebista				
Erbioaren ikurra	▶		Korrikaren antolatzailea	▶	▼		Urrearen ikurra	▶	
Oloz igurtzi			(Zah.) Zakur				Harrapa ezak!		
▶		▼					▼		
									Lehehengo bokala
Suitzako ibaia	▶				Musika tresna	▶			▼

SUDOKU

9 x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarte-ko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere

8	2			3	7			
7			6			8	4	
1								
			1			3		
	8		7		6		1	
		6			9			
								8
	5	9			2			4
			4	9			6	5

5 X 5

Ezker eskuin eta goitik behera,
zenbaki bakoitzean hitz bera
aterako zaizu

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					

1. Nafarroako udalerria,
- Erronkaribarren.
2. Zohi, mokor.
3. Arloa.
4. Pilota handi.
5. Atsegina.

GOITIK BEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharrekoak

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

1. Zuhaitz mota. 2. Astroa, gaueko argia. 3. Mairidirea, mihisea. 4. Zaude. 5. Barazki hostotsua. 6. Pisu. 7. Mahaia estaltzeko oihal. 8. Gipuzkoako kostaldeko udalerria, Urola Kosta. 9. Higatua, hondatua.

ERANTZUNAK

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
41	42	43	44	45	46	47	48	49	50
51	52	53	54	55	56	57	58	59	60
61	62	63	64	65	66	67	68	69	70
71	72	73	74	75	76	77	78	79	80
81	82	83	84	85	86	87	88	89	90
91	92	93	94	95	96	97	98	99	100

Lizarrar. Izarra. Iza. Zera. Aza.
Zama. Zama. Zumaia. Maiztua.

[illegible]



Santakrutzei hasiera emateko gogoz



2014, apirila



XX.

ON MANUEL ANTONIO ANTIA
Literatur Lehiaketa

Sari banaketa ekitaldia
Maiatzaren 9an, ostirala 19:00etan Gaztelekuan



Santakrutzak umorea, musika eta festa



Apirilak 30, asteazkena. 19:30

Jaien hasierako pregoiaren ostean, Zumeatarra elkarteko danborrada kalez kale arituko da.



Apirilak 30, asteazkena. 23:30

Donostia aldeko musika taldeak mexikar ukituko doinuak ekarriko ditu Santakrutzetara.



Maiatzak 4, igandea. 18:30

Kamioi Baby Band musika kalejira Kale Nagusian. Jai egitarauan maiatzaren 1ean iragarrita bazeuden ere, jaietako azken egunean aterako dira.

Apirilak 30, asteazkena

Jaien hasiera, txupinazoa

- 16:00** Haur pregoia Zumea plazan.
- 16:30** Txokolatada Zumea plazan.
- 17:00** Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan.
- 18:00** Puzgarriak Zumea plazan.
- 19:00** Buruhandi eta erraldoiak, Basterotik abiatuta.
- 19:30** Gora Kaletxiki txarangaren kalejira, Basterotik abiatuta.
- 19:30** Koadrilen jaitsiera eta pregoia Zubiaurre etxean. 50 urte betetzen dira emakumezkoen danborrada irten zenetik. Orduko hainbat partaide pregoia irakurtzeko eta jaiari hasiera emateko protagonista nagusiak izango dira. Ondoren, Zumeatarra elkartearen danborrada.
- 20:00** Txosnen irekiera Bekoplazan.
- 20:00** Alberto Agirre abesbatza, Andoingo txistulariak eta beste hainbat talde zuzenean, Basteron.
- 23:00** Elektro Orkestra txaranga, Bekoplazan hasita.
- 23:30** Berbena Bekoplazan: Laket eta Tajon Prieto y Los Kuajalotes.

Maiatzak 1, osteguna

Krosa, erreka jaitsiera, sardin jatea

- 10:00** Diana Andoingo dultzaineroekin.
- 10:30** XXXIV. Kros herrikoia, Bixente Huizi memoriala Bekoplazan.
- 11:30** Haur krosa Leizaur parkean.
- 12:30** Bakailao txapelketa Kale Nagusian.
- 12:30** Txirrindulari lasterketa Leizaur parkean.
- 14:30** Auzo bazkaria Kale Nagusian, bakoitzak berea eramanda. Kuxuxtu txarangak alaitua. Ondoren bertsolariak: Eskudero, Mujika eta Irazustabarrena.
- 17:30** Erreka jaisiera. Partaideak ordu-bete lehenago Olazarren.
- 18:00** Bizikleta festa Zumea plazan, 2-10 urte artekoentzat.
- 18:30** Herri danborrada, Bekoplazan hasita.
- 19:30** Haur ikuskizuna Zumea plazan.
- 19:30** Taberna arteko pintxo lehiaketa: Txitibar, Txalaka, Xaxi, Txuribeltz, Gaztelutxo, Txindoki, Irnunberri, Traiñerum, Urkiola, Bastero, Etxeberria Hiru, Atarraia, Miura eta Zeru. Txistularien kalejira.
- 19:30** Sardin jatea Zumea kalean.
- 22:30** Kontzertua: Cobra, Porco Bravo.

Maiatzak 2, ostirala

Koadrilen eguna

- 11:00** Herri kirolak, Incansables txarangak alaituta, Bekoplazan.
- 11:00** Haur arrantza lehiaketa Espigoian.
- 14:30** Koadrilen bazkaria Zumea plazan.
- 17:00** Soinuak taldearen kalejira, Basteron hasita.
- 17:30** Koadrilen kalejira Incansables txarangarekin, Bekoplazan hasita.
- 20:30** Karaokea txosnatan.
- 23:00** Berbena Bekoplazan: 3 gabe 2 eta Guri 5!

Maiatzak 3, larunbata

Santa Krutz eguna, Elegante eguna

- 10:00** Dultzaineroekin diana.
- 10:30** Ikurrinaren jaitsiera, eskopeteroek lagunduta.
- 10:30** Ezpata dantza.
- 11:00** Meza santua Santa Krutz parrokan.
- 11:30** Ezpata dantza eta brokel dantzak.
- 11:30** Andoingo trikitilariak kalez kale.
- 12:00** Txakolin dastaketa ermita parean.
- 17:00** Izartxorekin jolasak, Zumea plazan.
- 18:30** Kalejira elegantea, DJ Garik alaituta. Denok elegante jantzita irteteko deialdia egin dute.
- 22:30** Peña Santa Krutz elkartearen danborrada.
- 22:30** Bekoplazan berbena: Astral, Bagauda, Ingo al deu?

Maiatzak 4, igandea

Sagardo dastaketa, jaien amaiera

- 10:00** Tolosa, Iruñea eta Andoingo dultzaineroen topaketa.
- 10:00** Herriko artisauen azoka, Zumea plazan.
- 12:00** Kantu kalejira eta txalaparta ibiltaria, Basteron hasita.
- 12:30** Urki dantza taldearen kalejira. Emanaldia Zumea plazan.
- 13:00** Andoingo Bandaren kontzertua, Kale Nagusian.
- 18:00** Sagardo lehiaketa Zumea plazan, XXXIII. edizioa.
- 18:00** Talogileak Zumea plazan, "Basatloak" taldearekin.
- 18:00** Trikitilariak Zumea plazan.
- 18:30** Kamioi Baby Band musika kalejira Kale Nagusian.
- 20:00** Zozongo batukada, kalejira perkusio doinuekin.
- 22:00** Txosnen itxierako ekitaldia.



etorri eta proba itzazu!

Ubilluts auzoa, Pol. 56-Nº12 • 20140 Andoain
Tel.: 943 591 413 / Faxa: 943 590 456

www.azkainmoto.com / azkain@azkainmoto.com



Arteta, 1 eta 3 - ANDOAIN - Tel.: 943 591 226 - Faxa: 943 300 345



Rock musika jaietan

DANTZALDIAK ETA ROCK KONTZERTUAK TARTEKATUKO DITUZTE BEKOPLAZAKO TAULA GAINEAN.



Apirilak 30, asteazkena. Orkresta Nacional taldeko kideak. Iazko Sanjuanetan egindako bisitaldia errepikatuko dute.



Maiatzak 1, osteguna. Cobra taldeak ibilbide oparoa egin du euskal musikagintzan. Kantaria eta zuzeneko emanaldia bera, indartsuenetakoa gaur gaurko musika taldeen artean.



Maiatzak 1, osteguna. Porco Bravo musika taldeak rock doinuak lantzen ditu, zuzeneko ikusgarriarekin. Berriki, Tolosako kontzertuan, kantariak egunkari bat paparrean grapaz josi eta su eman zion.



Maiatzak 3, larunbata. Bagauda Oñatiko lau gaztek osaturiko taldea da, 21-25 urte artekoa. AC/DC edota Kiss taldeen bertsioekin trebatu ondoren, euren kantuak lantzeari ekin diote.

Pintxo festa

MAIATZAREN LEHENA OSTEGUNA DA, PINTXO POTE EGUNA. JAIETAN PINTXO LEHIAKETAREN II. EDIZIOA EGINGO DA.



Euro batean Andoaingo taberna askotan pintxo ikusgarriak ikusi eta dastatzeko aukera izango da.

Iaz jai batzordeak taberna arteko lehen pintxo lehiaketa antolatu zuen. Guztien artean epaimahaiak lehen saria Urkiola tabernako “Lore” izeneko pintxoari ematea erabaki zuen. Iazko arrakasta ikusita, aurten edizio berria burutuko da honako partaideekin: Zeru, Txitibar, Txalaka, Xaxi, Txuribeltz, Gaztelutxo, Txindoki, Irunberri, Traiñerum, Urkiola, Bastero, Hiru, Atarraia eta Miura. Zor-te on, eta on egin!



“Lore”, iazko pintxo irabazlea (Urkiola taberna).

Txotx! Zumea plazan

OHI BEZALA, JAIETAKO AZKEN EGUNEAN, SAGARDO ETA TALO DASTAKETA AUKERAN IZANGO DIRA ZUMEA PLAZAN



Jendetza biltzen da Zumea plazako sagardo lehiaketan.

Klasiko bilakatu da jaietako azken eguneko sagardo dastaketa. Eta bide beretik doa Basataloak taldeen eskutik eskaintzen den talo goxoa. Ekitaldiak promozio gutxi behar izaten du, eskualdean aski ezaguna eta estimatua izaten baita Santa Krutz jaietako sagardo dastaketa. Albistea nonbait bada, hori partaideen zerrendan aurkitu behar. Sagardo hauexek dastatzeko aukera

izango da: Andoaingo **Gaztañaga** eta **Mizpiradi**; Urnietako **Eula**, **Oianume**, **Setien** eta **Urruzola**; Adunako **Aburuza** eta **Zabala**; Astigarragako **Bereziartua**, **Etxeberria**, **Lizeaga**, **Petritegi** eta **Larrarte**; Asteasuko **Sarasola**; Hernaniko **Otsua-Enea**; Usurbilgo **Urdaira** eta Aiako **Satxota**.

Iazko sagardogile onenak: 1. Lizeaga (Astigarraga), 2. Setien (Urniet), 3. Gaztañaga (Andoain).

Ikusmin handia dago

AURTENGO PREGOILARIAK ORAIN BERROGEITA HAMAR URTE DANBORRADAN IRTEN ZIREN EMAKUMEAK DIRA.



Duela berrogeita hamar urteko irudia da honakoa. Pregoi berezia prestatzen ari dira haietako batzuk.

1 964ko Santa Krutz jaietan ikusmina sortu zuten neska gazte haiek, protagonista nagusi bilakatuko dira aurtengo jaietan. Eta asteazken arratsaldean Zubiaurre etxean zer egingo duten ikusteko sortu den ikusmina ere ez da txikiagoa. Are gehiago, aurreko asteko Aiurri egin zen aipamena eta gero. Jai batzordeak proposamena luzatu zientetik, partaide gehienek gonbitea gogo onez hartu dute; are

gehiago, zer bait berezia egiteko taldea osatu dute. Astean behin biltzen ari dira jendaurreko agerraldia prestatzeko.

Ez ohiko gertaera izan zen 1964koa, Santa Krutz peñako danbor jotzaile eta barrileroen artean emakumezko taldea danborra jotzen irten zelako. Zoritarrez, esperientzia hura ez zen geroan errepikatu. Jaietako lehen egunean ekimen hura eta emakume haiek omenduko dituzte.

Birziklatzeko deia

EGUZKI TALDEAK ZABORRA BEREIZTEKO EDUKIONTZIAK IPINIKO DITU KOADRILEN EGUNEKO BAZKARIAN.



Eguzki taldeak koadrilen eguneko bazkarian hondakinak bereizi eta birziklatzeko edukiontzia jarriko ditu. Jai giroan ere birziklatzearen aldeko apustua egin behar dela iritzio dio. Talde ekologistak, bide batez, "oraindik birziklatzen ez duenak eredu ikusi eta ikasteko aukera izango du"ela uste du. Beraz, koadrilen egunean hon-

dakinak bereizteko eta edukiontzi ezberdinak erabiltzeko deia egiten dute.

Ez da hori aurtengo jaietarako egin duten deialdi bakarra izan. Edalontziak ere berrerabilgarriak izatea eskatu dute, "dei egiten dugu ere jaietan edalontzi berrerabilgarria erabiltzera eta ingurumena zaintzera. Andoainen ere ondo egitera goaz".

*Santakrutzak
2014*

Elegante eguna

*Maiatzak 3, Larunbata
Santa Krutz eguna.*

*Denok elegante jantzita
irtetete deialdia*

*18:30etan Kalejira elegantea
Beko Plazatik hasita,
DJ Garik alaituta.*

Jaiak klik bakarrera

JAIA ESKUKO TELEFONOTIK JARRAITZEKO HAINBAT AUKERA ESKAINTZEN DITU AIURRIKO ERREDAKZIO TALDEAK.

Aiurri.com

AGRODENDA
Kale Nagusia, 28 - 20140 Andoain -

Eskualdea Aduna Andoain Asteasu Larraul Urnieta Villabona Zizurkil

Albisteak Agenda Argazkiak Zorion Agurrak Iritzia Inkesta Gure Galak Aldizkariak

ANDOAIN

Santakrutzak 2014, egitarau osoa

Apirilaren 30etik maiatzaren 4ra Santa Krutz jaiak ospatuko dira. 1964ko danborradako emakumeak, Santa Krutz jaietako pregoilariak izango dira.

Horra egitaraua, azken aldaketekin:

Apirilak 30, asteazkena. Jaien hasiera, txupinazoa

- 16:00 Haur pregoia Zumea plazan.
- 16:30 Txokolatada zumea plazan.
- 17:00 Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan

Dagoeneko ezaguna da aurtengo jai egitaraua. Aiurri egunez eguneko hitzorduen berri eman g du webgunean eta sare sozialetan. Eta aurreko urteetan egin bezala, jaietako argazkiak nahiz bideoak ikusgai ipiniko ditu Aiurriko erredakzio batzordeak.

Jaia hasterako, klik bakarrera, xehetasun berriak dituen egitaraua kontsultagarri izango da.

Eta zer esanik ez, jai iritsi bitarte irrika asetu nahi duenak, aurreko urteetako argazkiak eta bideo ikusgarrienak nahieran ikus ditzake Flickr eta Youtube atarietan.

111AKADEMIA:REN SARIA 2013

Maiatzaren 8an, ostegunarekin

Urnietako Sarobe Aretoan, arratsaldeko 19:30etan hasita

Idazle saritua:

Miren Agur Meabe

*Kristalezko begi bat
eleberriagatik*

The Icer Company
laukotearen musikak
gidatuko du ekitaldia.



111AKADEMIA:





KIROL ALBISTEAK

Leizaran eskubaloit taldeak erakusketa zabalduko du 35. urteurrena ospatzeko



Aspaldiko eta gaurko irudiak ikusteko aukera izango da Allurralde kiroldegian.

1979an abiatu zen Andoaingo eskubaloit taldearen ibilbidea. 35 urte denera, eta bertatik ehunka herritar igaro dira. Efemeridea ospatzeko zuzendaritza taldeak erakusketa zabalatzeko asmoa azaldu du, eta bertan ikusgai ipiniko dituzte argazkiak, bideoak, kopak, kamisetak,...

ERAKUSKETA

Erakusketa maiatzaren 30etik ekainaren 7ra zabalik izango da Allurralde kiroldegiko tabernan. Honakoa izango da ordutegia:

- Maiatzak 30: 19:00-21:00.
- Maiatzak 31: 16:30-20:30.
- Ekainak 2-6: 18:00-20:00.
- Ekainak 7: 17:00-19:00.

LAGUNTZA ESKAERA


Taldeko zuzendaritzak taldekiei laguntzeko gonbitea luza-tu die, baita erakusketarako interesgarri izan daitekeen materiala uztea ere.

Maiatzaren 30ean, erakusketaren irekiera ofizialarekin batera, ereserkia aurkeztuko dute.

Iturzaeta pala txapelketa herrikoian izena emateko azken egunak

Maiatzaren 9an hasi eta ekainaren 22ra bitarte bikoteka jotzen den Iturzaeta pala memorialaren edizio berria ospatuko da. Aurreko urteetan bezala, antolatzaileek herriko neska-mutilei luzatu diete deialdia. Adiskidetasun giro ederrean jotzen dira partidak, Sorabillako pilotalekuan.

Izena emateko epea egun hauetan amaituko da. Zehazki, apirilaren 30ean. Bikoteka ordaindu beharreko diru kopurua 12 eurokoa da. Txapelketa kamiseta ez duenak, al-diz, 20 euro ordainduta parte hartzeko aukera eta kamiseta eskuragarri izango ditu. Gogoa izan behar da txapelketan parte hartzeko Iturzaeta me-



morialeko kamiseta soinean eramatea beharrezkoa dela. Ondorengo tokietan eman dai-

teke izena: Arrate pilotalekua, Elizondo, Lanbroa, Irunberri eta Gaztelutxo.

Olatz Odriozola nagusi Bilboko BTT proban



Aurreko urteetan bezala, **Olatz Odriozola** maisutasun handia erakusten ari da BTTko lasterketetan. Bilbon berak irabazi zuen nesken mailan. Mutilen kategorian **Josu Arregik**



parte hartu zuen. Bezperan adierazi zuenez, urtebete egon da dortsala jantzi gabe. Egunean bertan, proba amaituta, aspaldiko partez gozatu zuela adierazi zuen.

Lizeaga jaun eta jabe “Trail de los Pastores” lasterketan



Asturiar lurretan, Arenas de Cabreleseko mendialdean burutu zen aurreko igandean “I Trail de los Pastores de Portudera” izeneko lasterketa. 21,5 kilometroko ibilbidearekin, eta 3.520 metroko gorabeherekin. Artzainen omenez egiten den lehen lasterketan urnietarra nagusitu zen. Hel-mugan, gainera, alaba zain zuen. Zorionak! Sailkapena:

- | | |
|--------------------------|---------|
| 1. Jokin Lizeaga | 2:12:07 |
| 2. J.Francisco Gutierrez | 2:14:47 |
| 3. Amador Priede | 2:23:02 |

Txirrindularitza probak Andoainen, Santakrutzetan

Andoaingo Txirrindulari Eskola antolatuta, alebin eta infantil mailako lasterketak burutuko dira Santa-krutzetan. Ostegun honetan, eguer-

diko hamabietan hasita. Aimar, Ibai, Unai, Maddi, Izarne, Beñat edota Nora bizikleta gainean ikusteko aukera paregabea. Animo!

Preferenten azken txanpa

Liga amaitzeko bi jardunaldi

29. Jardunaldia, maiatzak 3-4:

Urnieta-Deusto
Euskalduna-Mariño

30. Jardunaldia, maiatzak 10-11:

Lengokoak-Urnieta
Hernani-Euskalduna

Sailkapena:

- | | |
|------------------|----|
| 1. Martutene | 52 |
| 2. Usurbil | 52 |
| 3. Sanpedrotarra | 51 |
| 6. Euskalduna | 48 |
| 9. Urnieta | 40 |
| 16. Behobia | 17 |

Erregional maila, kopa

Kopako ligaskako azken partida

29. Jardunaldia, maiatzak 3-4:

Ontzerri-Asoleus
Euskalduna B [Atsedon]

Sailkapena:

- | | |
|------------------|----|
| 1. Gazte Azkuene | 27 |
| 2. Ontzerri | 23 |
| 4. Euskalduna B | 11 |

Haurrak erbestean ikus-entzunezkoa



Karmele Otaegi eta Marta Trutxuelo ikus-entzunezkoa eskutan dutela.

Balorazio baikorra egin dute “Andoingo haurrak erbestean” dokumentalaren egileek. Hiru emanaldi prestatu ziren Basteron apirillean zehar, beste hainbeste taldeei begira: testigantza eman dutenak, ikasleak (laugarren DBH eta lehenengo eta bigarren batxilergoak) eta azkenik, publiko zabala. Hiruetan, ezin hobe izan da entzuleen harrera.

Gidoia egin eta zuzendu duten Karmele Otaegi eta Marta Trutxueloren esanetan, “ikas-tetxeetarako material didaktiko erabilgarria gauzatzea zen lehenengo helburua, eta hori lortu dela iruditzen zaigu. Andoingo 300 ikaslek ikusi zuten, eta adi-adi egon ziren pantailari begira ordu betez. Nahiko hunkituta irten ziren Basterotik; historia kontatzen den moduan, interesgarria egiten dela aipatu zuten askok. Gerra garaian euren aitona-amonak non eta zertan ibili ziren gerra garaian galdetuz ibili dira etxean hurrengo egunetan, eta ikus-entzunezkoak jakin-mina piztu izanaren adierazle izan liteke datu hori”. Trutxueloren esanetan, testigantza eman duten protagonistekin ere bazeukaten beldur pixka bat: “ez genekien beraiek esandakoak ondo laburbilduta geratuko ote ziren. Beraiek espero bezalako delat aitoritu digute, eta pozik gara alde horretatik”.

Azkenik, publiko zabalak ere eduki zuen ikusteko aume-



Beatriz Amondarain errerealizatzailea.

ra, azken emanaldian: “50 urtetik gorakoak izan ziren gehienak, 300 bat edo; akaso adin-talde hori izan liteke erakartzen errazena, aurrez jarre-ra konstzienteagoa baitauka gai historiko horrekiko”.

Karmele Otaegiren iritziz, gertutasuna izan daiteke arrakasta lortu izanaren arrazoietako bat: “historia handia lantzen du dokumentalak baina Andoainen kokatzen du, eta gainera, bertakoak ditu protagonistak, gure bizilagun edo aitona-amonak izan daitezkeenak”.

Pena bakarra geratzen zaie egileei: “berandu gabilta, eta ezin izan gara iritsi kontatzeko asko zeukaten pertsona gehiagorengana...”.

ALDERDI TEKNIKOA

Ikus-entzunezkoaren errerealizazioa eta muntaiaz arduratu diren Ignacio Zabala eta Beatriz Amondarainen lana goraitu dute Trutxuelok eta Otaegik. Andoingo zine eta bideo eskolako irakasle den Amondarainek adierazi duenez, “teknikoki dokumentuari forma ematea izan da bion ardura. Urtebete iraun duen prozesu luze eta neketsua izan da, egia esanda; muntaia hamabostero osatu eta berrosatu behar izan da, talde lanean. Izan ere, protagonista bakoitzarekin ordu beteko grabazioa geneukan, eta guztiek ere gauza aberasgarriak kontatzen zituzte-nez, ez da erraza izan dena ordu betean laburbiltzen”.

Erlojuaren kontrako lana egin behar izan dute, baina gus-tura geratu dira biak ere azken emaitzarekin. “Bost zatitan egituratuta geratu da, eta iruditzen zaigu denak ere erabilgarri gertatuko direla ikaste-txeetan, unitate didaktiko gisa”.

Oharra: Bi ale udal liburutegian daude eskura DVD formatoan. Informazio gehiago, Udal artxibategian.

“Oinetakoen ekoizpena aldatu da, baina batez ere, bezeroa”

Xare zapata dendak hogeita bost urte

Hogeita bost urte egin berri ditu Maripi Herce Xare oinetako dendaren ardurapean. Ondo ezagutzen du urte horietan denda txikiak Andoainen bizi izan duten eboluzioa, eta garai latzak direla onartu arren, gazteak merkatari izatera animatzen ditu.

Zer dela eta eman zenuen merkatari izateko pausoa?

Maripi Herce: 1989ko otsailean izan zen. Andoingo udaletxean ari nintzen lanean, NAN agirien tramiteak egiten. Gestio hori Donostiara pasa zutenean, kalean geratu ginen langileok. Langabezian geratu nintzen, beraz. Orduantxe, denda honetan bertan oinetako denda zeukan emakumea, Rufina Azkue jubilatua egin zen eta neu negoziorekin aurrera egitera ausartu nintzen. Nola diren gauzak, Xare denda ireki eta handik bi hilabetera berriro hots egin zidaten udaletxetik beste lanpostu bat eskainiz! NAN agiriekin nirekin jardun zuten lankide ohiak udal langileak dira egun...

Ospakizun berezirik egin al duzu?

M.H.: Ez naiz ospatu zalea, eta erakuslehoan ez dut ezer adierazgarri jarri. Egia esan, hogeita bost urte azkar batean pasa dira. Ohartu ere ez! Hala doa bizitza ere, behin adin batetik aurrera...

Zertan aldatu da zure denda, orduz geroztik?

M.H.: Oinetakoen ekoizpena aldatu da, baina batez ere, bezeroa. Erosteke moduak eta ohiturak dira erabat aldatu direnak. Irageanean, bezero zintzo edo finkoa zen nagusi. Bakar batzuk geratzen dira horrelakoak, gogoko dutenak zeuk aholkatzea, hizketan lasai jardutea... Beste muturrean, jarreraren merkatalgune handien eragina nabari zaionak daude: sartzen dira ezer esan gabe, begiratzen dute guztia, eta etorri bezala alde egiten dute.

Zuek, merkatari txikiak, zer eskaini dezakezue merkatalgune handien ondoan?

M.H.: Gertuko da gure tratua, pertsonalagoa; eta horrez gain, bizitasuna ematen diogu herriari. Askotan, “Andoainen ez dago ezer!” esan eta herrian bertan begiratu gabe irteten gara kanpora. Iruditzen zaigu produktu merkeagoak eta kalitate



Xare dendako Maripi Herce.

hobeagoak topatuko ditugula kanpoan. Bada, maiz, ezusteko handiak hartzen ditu jendeak; halako batean ohartzen gara, herrian bertan ere bageneukala produktu berbera, eta ez garestiago!

Nik, horrexegatik, andoaindarreri eskatuko nieke lehenbizi begira dezatela herrian bertan. Batzuei erreparoa ematen die eza-guna duten dendari horrengana joan eta ezer erosi gabe irtetea dendatik. Bada, kendu ditzatela lotsa horiek, eta lasai-lasai eta konfiantza osoz sar daitezela barrura; har dezatela denbora nahi dutena ikusteko, galdetzeko, eskatzeko... Horretarako gaude.

Herriari bizitasuna ematen diozue-la, esan duzu...

M.H.: Denda txikiak ez dute soilik salerosketa huts-hutsa egiteko espazioa eskaintzen. Dendari eta bezeroen artean tratua sortzen da, eta hor pertsonen arteko harremanetarako, berriketarako..., bidea jartzen da. Herriko kale bizitzari bizitasuna ematen diote dendek, azken batean. Erreterian, behin, proba adierazgarri bat egin zuten: denda guztiak itxi eta era-



Gertuko tratua eskaintzen dute herriko merkatariak.

kusleihoak itzali egin zituzten. Bertako herritarrei zer pentsatua ematea lortu zuten, ikusgarri geratu baitzen zein triste eta iluna izan daitekeen dendarik gabeko herri bat.

Nolakoa da zure dendaren egoera, egun?

M.H.: Mantentzen naiz, eta ez da gutxi! Andoain beti izan da gutretzat leku zaila salmentarako. Andoaindarrok beti eduki dugu ohitura handia Donostia eta Tolosara arrimatzeko. Gainera, herria bitan banatua dagoela sartu ohi zaigu txiki-txikitatit buruan. Psikologikoa da, eta Bastero parean dago muga: edo goian zabiltza edo beheran. Beti izan da horrela, nahiz eta agian ohartu ez. Nolanahi ere, nire denda nahiko leku onean dago. Gertu dauzkat ikastetxeak, anbulatorioa, Goikoplaza..., eta pasae-ran geratzen den lekua da.

25 urte horietan, egun bizi dugun krisiaren antzeko egoerarik eza-gutu izan duzu?

M.H.: Ez. Latza da oraingoa! Egon dira urte edo bolada txar-rrak urte horietan, baina ez hau bezain larria. 2011ko azken hilabeteetan hasi ginen nabaritzen. 2012 eta 2013 oso gogor-rrak izan dira, eta nekez iraun dugu denda batzuek; itxi behar izan dute beste batzuek. 2014. urtea, berriz, lasaiagoa doa. Ikusteko dago, baina itxaropen-tsu nago ni.

Oro har, nolakoa da Andoingo dendarien osasuna?

M.H.: Azken urtetan denda eta taberna ugari itxi da. Pena da. Bestalde, gazte batzuk merkatari izateko pausua ematen ari dira azken aldian, eta eskertzekoa da hori. Poza ematen du Kale Nagusia nola ari den biziberritzen ikustea.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buzkara

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publicitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia: diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzaiak:

Mikel Arregi (Andoain), Gaizka Bernardo (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.



HITZORDU GEHIAGO

Agenda

APIRILAREN 30ETIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “Alabama Monroe”. Maiatzak 1, ostg. 19:30. Maiatzak 2, ostr. 19:30. Maiatzak 4, ig. 19:30. Maiatzak 5, astelehena: 19:30 / 22:00 (Ikuslearen eguna).

Literatura

Urnietan

- 111 Akademia saria, zeinean Miren Agur Meabe idazlea sarituko duten “Kristalezko begi bat” eleberrigatik. 19:30. Sarobe. Doan. Maiatzak 8, osteguna.

Andoain, Liburutegia

- Literatur solasaldia: “Kristalezko begi bat”. Izena emateko: liburutegia@andoain.org. Maiatzak 27, asteartea.

Matrikula

Eskualdea

- Batxilergoan izena-emateko epea: Maiatzaren 5etik 15era. Lanbide Heziketako aurre-matrikulazioa: maiatzak 27-ekainak 6.

Urnietan, Salesiarrek

- Ate irekien jardunaldiak Lanbide Heziketa ikasteko asmoa duenarentzat. Maiatzak 14 eta 15. 17:00-20:00.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- Pablo Donezar Manterola. Maiatzaren 9tik aurrera.

Lehiaketa

Andoain

- “San Juan jaiak 2014” kartel lehiaketa. Informazioa eta lanak aurkezteko: Bastero. Bi maila: gazteak eta helduak. Epea: Maiatzak 9.

Antzerkia

Urnietan, Sarobe

- Happyend, Vaiven producciones taldearen lan berriaren aurre-estreinaldia. Sarrerak dagoeneko salgai. Sinopsia: HappyEnd elkarte klandestino da, elkarren artean harremanetan jarritzeko suizidei euren helburua lortzeko laguntza eskaintzen diena. 20:00. Sarobe. 3,5 euro. Maiatzak 4, igandea.

Andoain, Bastero

- Zazpi aldiz elur (Mikel Laboa elurretan). Tanttaka Teatroaren ikuskizunean Laboaren nahiak, bizipozak, gauza intimoak, pertsonalak eta ezezagunak kontatuko dira, ausardiaz, berak egiten zuen bezala; esperimintatu, jolastu, hitzegin, ixildu..., aske sentitu eta aske sentiarazi. 21:30. 12 euro. Maiatzak 9, ostirala.

Sariketa

Urnietan

- Antia literatur sari banaketa ekitaldia. Maiatzak 9, ostirala.

Dokumentala

Andoain, Bastero

- No More Tour, Fermin Muguruza. Bost hilabeteko biran emandako berrogeita hamabost kontzertu guzti-ira. 19:30. Dohainik. Euskaraz. Maiatzak 6, asteartea.

Pailazoak

Urnietan

- Bizipoza Pirritx eta Porrotx pailazoaren berriena. Sarrera: 7 euro. Aurrez salgai: Kantoi, Amalur. 17:30. Egape ikastolako jolastoki estalian. Maiatzak 28, asteazkena.

Jaiak

Andoain

- Santakruzak 2014. Egitaraua, azken aldaketak eta guzti, erdiko orrialdeetan. Apirilak 30-maiatzak 4.

Urnietan

- Santa Krutz jaia Azkorten. Maiatzak 3, larunbata.
- Gazte Jaiak 2014. Maiatzak 30-ekainak 2.

Manifestazioa

Buruntzaldea

- Langilegoaren nazioarteko egunean, eskualde mailako manifestazioa LAB sindikatuaren eskutik. 12:00. Hernani. Gudariaren plaza. Maiatzak 1, osteguna.

Jaialdia

Urnietan, Sarobe

- Urnietako Gure esku dago ekimenak kultur ekitaldia antolatu du: abeslariak, musika, bertsoak, bideoak,... Sarrerak dagoeneko salgai. 19:30. 2 euro. Maiatzak 10, larunbata.

Odol-emaileak

Andoain

- 18:30-20:30. Anbulatorioa. Maiatzak 13, asteartea.

Urnietan

- 18:30-20:30. Maiatzak 30, ostirala.

Tailerra

Andoain

- "Konfiantza eta harreman onak gure seme-alaba nerea-beekin", Udaleko Gizarte Zerbitzuen eskutik. Izena emateko epea: maiatzak 9 (943 30 43 43). 10:00. Urigain. Maiatzak 10, larunbata.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Apirilaren 27an Ekhik 6 urte bete zituen! Zorionak etxekoan partetik, egun polita igaro zenuelakoan.

ANDOAIN

ZORIONAK



Apirilaren 29an Pellok 3 urte bete zituen. Zorionak txapeldun!!!! Muxu mordoa. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak Urko!!! Aurreko apirilaren 24an 20 urte bete zituen. Zorionak etxekoan partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



Anek maiatzaren 3an 19 urte bete-ko ditu. Zorionak etxekoan partetik eta ondo pasa Santakruzak.

ANDOAIN


ZORIONAK



Eneko Fernandezek bi urte. Muxu handi bat pexioxo! Segi beti bezain alai!

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak Alain eta Iñakiri, apirilaren 28an eta 30ean bete dituzte urteak. URNIETA

ZORIONAK



Maiatzaren 6an Mikel Agudo Bonafauk 5 urte beteko ditu. Aita, ama eta Nahia.

Bost euroko erosketarekin bus txartela dohainik



Salkin merkatarien elkarteak ekimen berria martxan jarriko du, maiatza osoan zehar. 5 euroko erosketa egiten duenari herri barruan ibiltzeko bus txartela oparituko diote. Eroslea aukera honetaz Salkin elkartearen dendetan baliatu ahal izango da.

Andoaingo San Juan jaietako txupinazoa

Jai batzordeak San Juan jaietako txupinazoa botatzeko hautagaia herritarrekin batera aukeratu nahi du. Deialdia zabalik dago. Beraz, hauta-

gaia proposatu nahi duenak Basterora edota Atarira jo dezake. Emailaz ere bai: kultura1@andoain.org. Epea maiatzaren 10ean amaituko da.

Eskelak,
hileta-oharrak
Aiurri
astekarian

@ diseinua@aiurri.com
☎ 943 300 732

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO TWITTER ETA FACEBOOK GUNEETAN